

B

BARREN

TOKIKOM



Sortzea afizio

Izaro Etxegibel eta Irati Agirreazaldegi

Ezteiak



Kanpoko
estetika
guztiz
berriztua

Ezkontz
berrientzako
suite berezia
DOAN!

%10eko
deskontua
gonbidatuen
logeletan

%50eko
deskontua
egile-eskubideetan

Erretzaileentzako
terraza
jangela alboan

Dantza
terrazan
berandu
arte



Tel.
943 202 727
Faxa.
943 208 991
Arrate auzoa, z/g -EIBAR-

**Krabelin**

HOTELA
JATETXEA

E-maila: conecta@hotelkrabelin.com

www.hotelkrabelin.com

Likidatzailliak

Ohiko segurtasun aproba batian izandako arduragabekerixa kate luze batek 4. erreaktorian eztanda izatea ekarri zaban. Bateko eta besteko sutiak emendatzia lortu zebenian, ebidentzia tragiko baten aurrian zaudela konturatu ziran hondamendi haura kudeatziaz arduratzen ziranak. Erreaktorian nukleua, milioika litro ur (ordurako oso kutsatuak) gordetzen zittuana, segurtasunerako piszina batzuen gainera jausteko puntuan zagan, gordetzen zaban uranio eta plutoniozko laba radiaktibua agerixan zabal.

Erabaki bat hartu zan. Piszinetako ur kutsatua propio prestatutako edukiontzixetara ahalik lasterren hustu biharra zagan, laba, edo erreaktoria bera, piszinara jausi eta lurruneztanda ikaragarri batek laño radiaktibo hilgarria sortzerik nahi ez bazan. Zentraleko sistema elektronikuak hondatuta zauden, eta eskuz egin biharrekua zan zoritxarreko lan hori. Baten bat arduratu biharko zan, balbulak zabalduko zittuen giltzak zauden lekura jun eta hárek biratzi. Giltzok piszina barrenian zauden. Bristara urdinska ateratzen zaban ur haren azpitan... Gaiñian, metro gutxira, masa radiaktibuaren mehatxu indartsua zabal.

Alexei Ananenko, Valeriy Bezplov eta Boris Baranov izan ziran juanekua baino ez zan bidaia haretarako apuntatu ziranak. Iñork horretara bihartu gabe, antza danez. Urpekarixen trajiak jantzi, lan-tresnak hartu eta radiazio potzu haretan barneratu ziran, gaiñontzekuak, urduri, arnasiari

eusten ziren bittartian. Bizitza asko salbatu ei zittuzten. Ez dakigu zenbateraino hala izango dan. 25 urte beteko dira apirilaren 26xan.

Aurrekuan, Fukushima samuraixei buruz ziharduten egunkarixek. Taldian onerako euren burua eskaintzen debent indibiduoetz.

Zentral nuklearrak zela ugaldut diran ikusitta likidatzaillie ukraniarrak eta samurai japoniarrak izango dabe, izango dabenez, derrigortutako jarraitzaillierik aurrerantzian. Ondo dakixe hori indar nuklearra babesten debent, esaten debent debent.



Enez Ezenarro

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Zentral nuklearrak zela ugaldut diran ikusitta likidatzaillie ukraniarrak eta samurai japoniarrak izango dabe, izango dabenez, derrigortutako jarraitzaillierik aurrerantzian”

PREST



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ORDIZIA MARTXOAK 26 larunbata, 11:00

ARRASATE APIRILAK 2

larunbata, 11:00 *master akademikoa*

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI APIRILAK 2 larunbata, 11:00

IRUN APIRILAK 9 larunbata, 11:00

ARETO
NAGUSIAN
*Etorri aurretik
izena eman!*



jonmaia



Jon Maia eta Amets Arzallus bertsolariekin bazkaria antolatu du biharko Arnaldo Otegiren aldeko plataformak. 13:00etan batuko dira Plaza Handian, eta trikipoteoa egingo dute. Bazkaria 14:30ean izango da, Elgoibarko Ikastolan. BARREN astekariak Jon Maiarekin hitz egin du, eta bertsolaritzaz gain, Arnaldo Otegiren egoeraz ere mintzatu da bertsolaria.

Ainhoa Andonegi

“Umoreak artea eduki behar du bertsolaritzan”

Arnaldo askatu, politika askatu plataformak gonbidatu zaitu Elgoibarrera. Zer diozu Otegiren egoeraz?

Arnaldo Otegiren egoera deskribatzeko hitz egokia topatu da. Elgoibarren egin zuten tertulian esan zuten bezala, bahitu politikoa da. Horrelaxe daukate, bahituta. Arnaldo Euskal Herriko egoera politikoaren sinbolo bilakatu da, bai guretzat eta baita Gobernuarentzat ere. Estatu gizon baten gaitasuna daukala badakite gobernuan, eta ez dute nahi Otegi aktibo egotea, hemen kanpoan dagoen egoera aurrera ateratzeko.

Bertsoaren mugetan kantatzera ohituta zaudete, neurri eta erima baten barruan. Horrez gain, beste ezerk mugatzen zaituzte kantatzerako orduan?

Denetariko kasuak izaten ditugu. Batzuetan autozentsura aplikatu behar izaten dugu, beldurragatik. Bat-batean ari gara, esan nahi dugunaren eta esatera iristen garenaren artean borrokan, eta edozein irristada problematikoa izan daiteke, gaur egun adierazpen askatasunak mehatxu eta markaje estua

daukalako. Gaia bera ere zaindu egin behar da, umore gaietan batez ere: ideia bat etortzen zaizu burura, baina gero agian entzuleek ez dute ulertzen, edo ez dute umore horrekin konektatzen, eta hori zaindu egin behar izaten da. Bestela, gaiak agintzen dizuna egin behar duzu, nahiz eta zure iritzia kontra kantatu behar izan. Edozein gai jartzen dizute, eta batzuetan zu zeu izan zaitezkeen arren, beste askotan rol bat antzetzu behar izaten dugu.

Bertsotan umoreak arrakasta handia izaten du, baina non dago umorearen muga bertsolaritzan?

Umoreak arte dosi bat baldin badu, askoz onargariagoa da. Pertsona bati buruz umorea egiten dugunean, ez da besterik gabe bere kontura barre egitea. Pertsona hori askotan ez dugu ezagutu ere egiten, eta hari buruzko umore burdo bat egitea, berataz barre egiteko edo umiliatzeko, ez da entzuleen gustuko izaten. Umoreak artea eduki behar du bertsolaritzan. Bestalde, niri ez zait gustatzen zenbait gairekin umorea egitea.



Esaterako, gai politikoak, tortura kasuak edo atentatuak ez zaizkit umorez tratatzeko gaiak iruditzen.

Zure bertsokera oso intimoa dela esaten da. Jendaurrean biluzte horrek ez dizu beldurrik ematen?

Askotan errazagoa egiten zait jendaurrean biluztea, aurrez aurre baino. Nahiko irekia naizela uste dut, eta askotan nik zaldia eraman beharrean, zaldiak eramaten nau ni. Nire ustez, benetakotasuna transmititzea oso baliabide interesgarria da bertsolarientzat. Hau da, esaten ari zarena transmititzen baldin badakizu, jendearena iristen zara. Ni izugarri sartzen naiz gaietan, eta benetan sentitzen ditut gaiak. Batzuetan, gairen arabera, negargurea ere sentitu izan dut. Zaldiak ni eramatearen eta nik zaldia eramate horren artean oreka aurkitu behar izaten dut.

Plaza handiak ala txikiak dituzu nahiago kantatzeko?

Bertso afariak edo bazkariak dira plazarik politenak. Tabernetan, entzule bildu batzuen aurrean ere, gustura sentitzen naiz. Horrelako egoeretan zeuk sortu behar izaten duzu dena ezerezetik, eta batzuetan horrek beldurra ere ematen du, baina gero satisfazio handia ematen du, zeuk egin duzulako guztia. Hala ere, ez dut ukatuko Euskal Herriko finalean kantatzeak ematen duen plazerra. Horrelako plaza batean kantatzeak ematen duen sentazioa izugarria da, eta gainera, inoiz ez dakizu berriz kantatuko duzun hor. Oso sentimendu intentsoa eta berezia izaten da.

Gaur egun ekitaldi gutxi hasten dira aurreku edo bertsorik gabe. Zer sentitzen duzue horrelakoetan?

Askotan joaten gara konpromisoz, baina beste askotan konpromiso hori zentzu positiboan ulertu behar da. Hau da, konprometua sentitzen garelako joaten gara, eta iruditzen zaizulako zuk egoera horretan lagundu dezakezula. Edozein motako ekitaldietan egoten gara, eta, nire ustez, bertsolaritzak

daukan balore handienetako bat euskal gizartearen funtzio soziala da. Bertsolaritza gizartearen egunerokotasunean txertatuta dago, eta bertsolaria ez den jende askok ere betetzen du funtzio hori. Jende askok egiten ditu bertsuak ezkontza gonbidapen baterako, eskela baterako, hileta batean edo taberna baten inaugurazioan abesteko... Horrek erakusten du bertsolaritza osasuntsu dagoela. Politika da gurea bezalako are zahar honek XXI. mendean zentzu praktikoa eta sozial hori edukitzea.

Goia jo duen bertsolarien belaunaldikoa zara zu. Zein da zuen belaunaldiak bertsolaritzari egin dion ekarpenik handiena?

Hasi ginen garaian hasi ginelako eta gentozen kulturatik gentozelako, bertsolaritza eta gaur egungo kultura garaikidea lotzeko zubia izan gara. Bertsolaritza eta gure adineko gaztediaren arteko zubi lana egin dugula uste dut, naturaltasun osoz. Bertsolaritzan hasi ginenean mundu tradizionala zen oraindik. Zabaltzen hasia zegoen jada, gure aurretik ere, Andoni Egaña, Peñagarikano, Murua, Mendizabal, Sarasua eta Euzkitzeren belaunaldiak ere zabaldu zuelako bertsolaritza mundu tradizional eta ruraletik, baina, guk eraman dugu gaur egungo gaztediarenganainoko bide zuzena. Nik 17 urte nituenean La Polla, Barricada, Kortatu eta horrelakoak entzuten nituen, eta hori zen nire kultura. Bertsoa kultura horretatik urrun zegoen orduan, eta gure belaunaldiak gerturatu egin du. Orain dela hogeitun penintsaezina zen gaur egun BECen ikusten dugun jendea bertso bat entzutera joango zenik.

Ikusentzunezkoak egin dituzu, gidoigile lanetan ere bazabiltza eta idatzi ere egiten duzu, baina nola komunikatzen duzu hobeto?

Hitzez, dudarik gabe. Ofizio asko izan ditut, baina ardatza beti da hitza; hitza komunikazio tresna bezala. Dokumentalak ere egin ditut, eta irudiak daukan potentzia deskubritu dut. Oso gustura nabil alor horretan ere.

2005ean 'Riomundo' eleberria kaleratu ze-

nuen eta Durangoko azokan salduenetakoa izan zen urte hartan.

Beldurra ematen zidaten Durangoko azokan nire liburua erosteko sortzen ziren jende-ilerak. *Ez bazaie gustatzen?*, galdetzen nion nire buruari. Gainera, bertsotan txaloak momentuan jasotzen ditugu eta kasu honetan liburua erosi behar da, etxera eraman, noizbait irakurri eta itxaron. Urduri aterata nintzen Durangotik. Urte hartan *Bihar Euskal Herria* Arnaldo Otegi eginiko elkarrizketa ere argitaratu zuten, eta nire lana eta hori izan ziren azokan gehien saldu zirenak. Berak ni baino gehiago saldu zuen, gainera. Liburu bat oparitu nion. Idazle ofizioa estimatzen ikasi nuen, eta izugarria izan da liburu horrek eman didana.

Karidadeko Benta taldeak arrakasta handia izan zuen. Zergatik erabaki zenuen lagatzea?

Pixkat *txulo* esanda, arrakastaz hil ginela uste dut. Ez geunden martxa horri eusteko prest. Dibertitzeko hasi zen proiektua, baina gero eta konpromiso handiagoa eskatzen zigun. Sei ginen, eta denontzako bigarren jarduera zen; ez ginen musikariak eta ez geunden hainbeste kontzertu emateko moduan. Zazpi urte egin genituen, eta hiru disko ateratu genituen, baina bukatu zen. Politika izan zen, eta oso ondo pasatu genuen. Nik ez diot gauza berriak egiteari beldurrik. Abentura gustatzen zait, eta beti amets bat eduki behar dela uste dut. Bizitza honetan oso inportantea da ametsak edukitzea.

Hemendik aurrera zertan ikusiko dugu Jon Maia?

Orain bertsotan nabil inoiz baino gehiago, eta inoiz baino gusturoago ere bai. Gogorra da, baina astero herriz herri ibiltzeak asko betetzen nau. Horrez gain, dokumental bat egiten ari naiz Nazioen Mundua taldearekin, eta Apaizac obeto ikusentzunezkoaren bidetik beste espedizio bat antolatzen ari gara. Beti bezala, hiruzpalau saltsatan sartuta nabil.

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Aina Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Aina Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Aina Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz.
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:




Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA



MENDAKO UDALA



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Libian tiro hotsa

Urtarrilaren 14an Tunezen hasitako erre-boltari Egiptokoak eta Algeriakoak jarraitu ziotenean, urte luzeetako botere autoritarioen bukaera zetorrela pentsatu genuen. Hots, altxamenduek mugimendu herritar eta progresistak ziruditen, eta hasieran iristen zitzaigun informazioa mugatua izan arren, Mendebaldeko haien askatasun egarriarekin bat egi-tea lortu genuen.

Libian erreboltak indarra hartu zuenerako, Tunez, Egipto eta Algeriako diktadoreak kendu zituzten, edota ihes eginak ziren, eta trantsizioa orain arte diktadura horiek sostengatu dituzten armaden esku gelditu zen.

Libian, ordea, Gadafiren erregimenak erreboltaren aurrean hartutako jarrera oso bortitza izan da. Gainera handik jaso dugun informazio kontrajarriak, eta Mendebaldeko herrialdeek hasieran Libiarekiko hartu zuten jarrera epelak, guztiaren atzetik beste interes batzuk ez ote zeuden galdetzeraz eramaten gaitu. Zeinek saldu dizkie armak? Zeinek sinatu ditu urteetan akordioak erregimen horiekin? Orain arte ez zegoen zapalkuntzarik? Eta kasualitatea ote da hain epe motzean urteetan jasandako zapalkuntzaren aurkako altxamenduak lurralde desberdinetan gertatzea?

Idatzi honen bidez, Mendebaldearen hipokresia salatzearekin batera, Libiaren okupazioa arbuia nahi dugu. Izan ere, Sahara eta Palestinaren aurkako erasoetan, adibidez, ez dugu interbentziorik ikusi.

Estatu frantziarrak, Britainia Handiak, eta Estatu Batuek, Estatu espainolaren (EAJ/PNVren aldeko bozkarekin) laguntzarekin hasitako okupazio kanpainak, Libiak duen petrolioaren kontrola izatea bilatzen du, eta honek paralelismo asko ditu Irakeko okupazioarekin.

NBEK (ONU) ezarritako protokoloa ere ez da jarraitu, eta presa handia izan dute interbentzioa babesteko, inolako beste neurririk hartu gabe, beste batzuetan egin duten bezala: blokeo ekonomikoa, isunak...

Amaitzeko, Gadafiren erregimenaren defentsa egin gabe eta Libian zegoen giza esku-bideen gabezia salatuz, argi utzi nahi dugu, gure ustez, hau interbentzio militarra dela, eta

salatu egiten dugula. Baita lehenbailehen amaitzeko eskatu ere.

Izaskun Arozena, Sabin Osoro eta Andoni Segundo ☛

Eta, orain zer?

12 urte, zein adin ederra! Lagunekin jolas-tu eta elkarbizitza oparora egiteko unerik ederrakoa. Lehengo larunbatean, ordea, adin horretako bi neskatza lagunartean zebiltzan Leku Ederren, jolasean eta musika entzuten. Bat-batean gizaki malapartatu batek une eder hori izu bilakatu zuen. Gizonezkoa neskengana hurbildu zen, eskuan laban bat zuela, eta ezohiko hizkeran "dáme la plata y el móvil" esan zien. Nesken poza eta disdira malko eta beldur bilakatu ziren berehala. Dena dela, ez zuten minik hartu, eta hori da garrantzitsuena.

Hori dena kontuan hartuta, bi nesken gurasook eskerrak eman nahi dizkiegu, bihotz bihotzez, gure ondoan egon zirenei batetik, eta, bestetik, Udaltzaingoiari, profesionaltasun handiz ezinbesteko laguntza eman zigulako. Halaber, euren babesa eman diguten herritarrei ere, eskerrik asko.

Azkenik, gogoeta xume bat eginez, hauxe da nire galdera: eta, orain zer? Arazo honi irtenbidea ematea gurutz-bidea izango da, hots, oso zaila. Baina ez litzateke ederra izango eskuak buruan jarri eta gai honi buruz berriro idatzi behar izatea, ezta?

I.E. ☛

Ondarea errespetatu, norbera errespetatu

Milioika urtetan gure barnean dagoen informazioaren emaitza da gizakia gaur egun dena. Kanpora begiratu gero, informazio hori ez dakigu modu egokian erabiltzen. Herrian galdu ditugun ondare historiko anitzak ikusi besterik ez dugu.

Kontraesana dago gure barnean. Hainbeste gogo eta izerdirekin egindakoa, eta barnean integratuta daukaguna, orain bota eta birrindu egiten dugu, gure barnean arbasoekin borroka sortuz.

SOS Praileaitz Elgoibar ☛



Arkaitz Irureta

Gogorra, baiña politta izan dok!

Ez jaukagu Udalak kontratautako arkitektoak beste denbora honetara bideratzeko, ezta berak bezainbat baliabide ia pelikuletako Elgoibar-hiria hiru dimentsiotan irudikatze; guk herrixa nahi juagu-eta, lokatza ukitu ahal dan herrixa!



Justo Arriola

Ematen jok Elgoibarren iritzi kritiko bat osatzen ari dala. Ez nauk esaten hasiko guri eskerrak dala, ez jauna, baizik eta beste zerbait gertatu dalakuan nagok. Ziurrenik guri gertatu jakun bezela, jendia nazkatu dok betiko irudixa ikustiaz eta ekintzetara pasatzeko ordua dala ohartu.

Ziurrenik aurkeztutako 130etik gorako alegaziueri aurrekuan bezela erantzungo jauek, gurekin ados daudela. Argi jagok ez dirala gertatzen ari denaz ohartu!

Ez, ez gaudela ados, kontxo! Zuen berdia eta gure berdia ez dituk antza kolore bera!

Konturatu al haiz berdez mozzorrotzen den Udal honetan egin nahi juen eskaillera mekaniko batek bide gorri sare guztixak beste balixo dabalala?

“Ematen jok Elgoibarren iritzi kritiko bat osatzen ari dala”

Oiñarrizko zerbitzuak murrizten, eta, aldiz, trena lurrazpiratze edo kiroldegixa lekuz aldatzeko ikerketek kostatu debena ikustiak kriston miña eman jgak. Eta zenbat atara nahiko juen milatik gora etxebizitzekin?

Hórrek guztixak eta gehixago ikusi ahal izan diagu, eta hori ez diagula eduki txostena sakon aztertze astirik, nik behintzat.

Bai, gogorra izan dok HAPOrri alegazioak aurkeztuak eskatu digun dedikazio dana, baiña tamaiña berekua izan dok emaitza. Ez dok uste, Justo?

In-komunikabidiak bultzatutako pasibotasun zorbixaren garaixan bizi arren, poztu bai, baiña ez gaituk harrotzen hasiko gitxieneua egitteagatik: beste era bateko Elgoibar nahi juagula aldarrikatu. Hau hasi besterik ez dok egiñ, hi. Izan ere, hirigintzan badok ustel-antz demasa, eta ez ei dok hondakiñena bakarrik.

Iritzi kritiko hori sendotu eta ekintzetara pasatuko al dok? Ojala, ze uste juat, alegaziuak dirala-ta, Udalaren plan-gintza erraldoia aldatzeko ikerarik ere ez debela egingo. Hori bai, makillaje tona dexente erabiliko juek euren garapen jasaneziña mozzorrotzeko. Agian, Garoñako langille kutsatuen raparen antzera, alkatiak eta arkitektoak porlanaren pasodoblia joko juek.

“Iritzi kritiko hori sendotu eta ekintzetara pasauko al dok? Ojala”

Jakiñekua dok zinegotzixak euren alderdixen esanetara dauazela eta hórrek politika ekonomikua agintzen daban oligarkiaren musika militarra dantzatu. Eta, azken maillan, herritarrok.

Lurra txikittu, kutsatu, beste herrixen baliabidiak lapurtu... hau progresua! Eskuak igurtzen dabixaz Petronorren Libiako bonbardaketekin.

Ba, apustua botako dixat: HAPOran gitxittu, birziklatu eta bererrerabili aipatu arren, urtero gutako bakoitzak batez beste 500 kilotik gora zakar sortzen juagula jabetuta edo, ezetz atez ateko bilketia martxan jarri, sistema horrekin zaborren %85 birziklatzen dala jakinda ere. Errauskaillu zikiña errentagarrixagua dok hondakiñen kudeaketarako planen atzian dauan mafiarentzat. Noizko dioxinaren bluesa?

I. URTEURRENA

JUANA URANGA ARMENDARIZ

2010eko martxoaren 26an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, martxoak 26, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.

Gogoan zaitugu



Inauguratu dute Arriagako Garbigunea eta laster egongo da erabiltzeko prest

Etxean sortzen diren hondakin bereziak batuko dituzte Garbigunean

Eguaztenean inauguratu zuten Arriagako Garbigunea, eta laster egongo da erabiltzeko prest. Manuel Astray, Debabarrenako Mankomunitateko presidentea inaugurazio ekitaldian esandakoaren arabera, "gertutasunagatik" Elgoibar eta Mendaroko bizilagunen hondakinak jasotzeko Garbigunea da Arriagakoa, baina eskualdeko herrie guztiei zerbitzua emateko asmoz eraiki dute. Astrayrekin batera, Debabarreneko herri gehienetako alkateak egon ziren ekitaldian, Elgoibarkoa eta Mendarokoa barne, eta Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Karlos Ormazabal diputatuak ere hartu zuen parte.

Hondakin bereziak

Etxean sortzen diren hainbat hondakin ezin dira kaleko ohiko zabor ontzietara botu. Horiek batzeko eta behar bezala kudeatzeko guneak dira garbiguneak. Elgoibarko Garbigunearen kasuan, txatarra, egurra, kartoia, plastikoa, gurpilak, obra hondakinak, indusketako hondakinak eta jostailuak eraman ahal izango dira hara, eta bakoitza dagokion edukiontzira botu beharko da. Bestalde, tamaina handiko tresnak jasotzeko edukiontzi berezi bat ere jarri dute, eta beste bi edukion-



tzitan, etxetresna zaharkituak jasoko dituzte. Era berean, erabiltzeko olioak birziklatzeko aukera ere badago.

Garbigunearen ordutegia honakoa da: astelehenetik ostiralera egongo da zabalik, 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, eta zapatuetan, 9:00etatik 13:00etara. Langile bat egongo da herritarrei laguntza emateko eta Garbigunearen funtzionamendua azaltzeko.

Labanarekin mehatxu egin ostean, dirua eta sakelako telefonoa ostu zieten zapatuan 12 urteko bi neskari

12 urteko bi neska gazte elgoibartarri sakelako telefonoa eta dirua ostu zieten joan zen zapatuan Leku Eder parkean. Gizonezko batek labanarekin mehatxu egin zien, eta dirua eta sakelako telefonoak emateko agindu zien. Udaltzaingoko iturriek jakinarazita, ustezko erasotzailea trenera bidean joango zen ziurrenik eta trena hartu aurretik gozotegi baten kanpoaldean zeuden bi neska gazteengana hurbildu zen. Ostutako gauzeekin ihesari eman zion gero. Bi umeek, izututa, jazotakoaren berri eman zioten Plaza Handian zegoen bietako baten amari, eta Udaltzaingoa eta Ertzaintza jarri zuten salaketa. Jabier Oñederra Elgoibarko udaltzainburuak jakinarazita, indarkeria erabiliz egiten diren lapurretak ez dira ohikoak izaten.

Orientazioari buruzko jardunaldia eskainiko dute eguaztenean

Lanbide Heziketako bigarren astearren barruan, orientazioari buruzko jardunaldia eskainiko dute Mekan datorren eguaztenean, martxoaren 30ean. 9:00etatik 13:30era izango da ekitaldia. Lehen zatian, Lanbide Heziketan ibilitako hainbat ikasle ohik euren kasuak kontatuko dituzte, eta 12:30etik aurrera mahai inguru bat antolatu dute. Mariano Iriarte Incess enpresako zuzendaria, Elena Alonso Debegesako garapen teknikariak eta Jesus Bilbao enpresari ohiak hartuko dute parte. Ikastetxeetako orientatzaileentzako jardunaldia izango da batez ere, baina interesa duen edonork eman dezake izena, 943 748 019 telefono zenbakira deituta edo bu-legoa@meke-elgoibar.net helbidera idatzita.

Izena **Joanes Rodriguez**



Joanes Rodriguez izango da Aralar alderdi politikoaren alkategaia Elgoibarren. Martitzenean egin zuten aurkezpena Kultur Etxeko sotoan, eta zerrendaburu gaztearekin batera, Rebeka Ubera Gipuzkoako batzarkideak, Izaskun Soraluze Aralarreko zinegotziak, Oxel Erostarbe Gipuzkoako koordinatzaile eta legebiltzarkideak, eta Laida Elizegi Iratzarriko kideak parte hartu zuten, besteak beste. Aralar alderdiaren ildo eta helburu nagusiak aipatu ondoren, Joanes Rodriguezek herrira begira jarri dituzten egitekoak aipatu zituen. "Herritik eta herriarentzat" lan egingo duela aurreratu zuen Rodriguezek, eta gazteentzako "politika ausartak" diseinatu behar direla nabarmendu zuen. Krisia ere izan zuen hizpide, eta langabeziaren ondorioak leundu eta lanpostu berriak sortzeko, Udalak bere gain dauden eskumen guztiak bideratu behar dituela uste du. Udala herritarrengana gerturatu behar dela nabarmendu zuen, eta herritarren parte hartze politikak bultzatzearen alde azaldu zen.

Irudia **Madalako elizako estalpea**

Madalako elizak aspaldi galdu zuen *malapea* berreskuratu du egunotan. *Malapea* elkartzeko eta jolaserako lekua izan zen sasoi batean elgoibartar askorentzat, baina 60ko hamarkadan kendu egin zuten estalpe hori. Lanak amaitu gabe daude oraindik, baina egun gutxi barru amaitzea aurreikusi dute arduradunek.



Azken zapatuko feria, bihar

Martxoko azken zapatuko feria antolatu du Udalak biharko. Batetik, Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera egongo da Nafarroa Plazan, eta bestetik, ganadu erakusketa egingo dute Plaza Txikian. Azokako txosna motoristen elkarteak hartuko du hilabete honetan, eta eguerdi parterako sahisiei eta txorizo pintxoak salduko dituzte euro batean. Horrez gain, Kale Kantarien emanaldia ere izango da, 11:00etan hasita.

Makrobiotika ikastaroa

Haizea emakume taldeak makrobiotika ikastaroa antolatu du. Hiru zapatutan eskainiko dituzte eskolak, 10:00etatik 13:00etara: apirilaren 16an, 30ean eta maiatzaren 7an. Elkarteko bazkideek 60 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 64 euro. Informazio gehiago Pitxintxu opari denda.

60 urtekoen kinto bazkaria

2011. urtean 60 urte egingo dituzten elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute maiatzaren 28an. Antolatzaileek 20 euroko aurrerapena egiteko eskatu diete bazkarira joango direnei. Interesatuak Euskadiko Kutxa-Caja Laboralako ondorengo kontu korrante honetan sar dezakete dirua: 3035 0007 25 0071121796. Informazio gehiagorako 943 740 779 (Mari Karmen) telefono zenbakira deitu daiteke.

Ekialdeko medikuntzari buruzko hitzaldia

Roberto Callado eta Miriam Lara adituek ekialdeko medikuntzari eta akupunturari buruzko hitzaldia eskainiko dute datorren barrikuan. Besteak beste, botikariek eta bestelako estimulatzailek gabe bizitza osasuntsua egitea posible dela azalduko dute. Hitzaldia 19:30ean hasiko da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

ESKULANGINTZA, ZALETASUNA BAINO GEHIAGO

Arte lanak barik eskulanak egiten dituztela nabarmendu dute solasaldia hasi eta bat, baina haien lana eza gutzen duen inork gutxik ukatuko du Irati Agirreazaldeggi eta Izaro Etxegibel artistak direnik. Aparteko trebetasuna dute eskulanetarako, eta kontu handiz zaintzen dituzte detaile txikiak ere. Bitxiak egiten ditu Iratik, eta etxerako apaingarriak Izarok, eta euren afizio horrek diruz aberasteko biderik eman ez arren, bistan da beste gauza askok baino gehiago betetzen dituela.

Ainara Argoitia

Ume-umetakoa dute eskulanetarako afizioa bai Iratik eta baita Izarok ere. Ikastolan, plastika zuten ikasgai gustukoena, eta ikaragarri gustatzen zitzairen etxean atzera gelditutako altzari zaharrak berritzea eta karpeta-azalak egunkarietako eta aldizkarietako argazkiz janztea. Umetako afizio horrek Arte Ederrak ikastera eraman zuen Izaro, esate baterako, nahiz unibertsitate ikasketek ez zuten ase. “Ikastera joan nintzen ni unibertsitatara, baina han ez ziguten irakasten. Egia esan, ez dakit hori irakatsi daitekeen ere, baina nik beste zerbait espero nuen. Marrazketarako berezko erraztasuna zutenei teknika hobetzen laguntzen zieten, baina nik neuk orduak ematen nituen koadroa nondik hasi ere ez nekiela. Urtebete egin eta laga egin nuen”, gogoratu du. Publizitate ikasketei heldu zien gero, eta kazetaritza ikasketak hasi zituen Iratik, baina egunak libre lagatzen zizkien orduak “bizioari” eskaintzen zizkieten: eskulanei.

Dekorazioaren eta apaingarrien munduak ikaragarri erakartzen zituen bata zein bestea. Izarok gogoan dauka amamaren logelako mahaitxo zahar bat hartu eta zuriz margotu zueneko. Dekorazio aldizkari batean ikusia zuen, eta berak ere saiatzea erabaki zuen. “Beti erosi izan ditut dekorazio aldizkariak”, dio. Puntua egiten ere umetan ikasiz amamari, eta gerora, dozenaka adur-zapi apaindu ditu gurutzepuntuz, ama izan berri ziren lagunei oparitzeko. “Marraztea ez beste guztia gustatu izan zait”, nabarmendu du horren harira. Aspaldian alde batera lagata ditu jostorratza eta haria, eta etxerako koadro eta apaingarrietan zentratuta dabil. “Amari oparitu nizkion egin nituen lehenengo koadroak, bere urtebetetzean”. Urrian bi urte beteko dira ordutik, eta makina bat apaingarri oparitu eta saldu ditu egun hartatik hona. “Prezioa jartzea da zailena”, nabarmendu du horren harira.

Irati, berriz, bitxigintzan dabil buru-belarri. Belarritakoak, eraztunak, paparrerako apaingarriak eta diademak egiten ditu, mimo handiz. Ahizpari oparitu zizkieten belarritako pare bat gustatu, eta halaxe hasi zen



bera bereak sortzen. Lagunentzako eta gertukoentzako banaka batzuk sortu zituen aurrena, baina ahoz ahokoak laster eman zuen eza gutzera Iratiren lana. Ordutik dozenaka belarritako, brotze eta diadema egin ditu. “Kotxeko maleteroa bete!”, adierazi du. Gustu guztietakoak ditu, eta enkarguz ere makina bat egin izan ditu, ezkontzetarako-eta. “Zer jantzi eramango duten esaten didate, eta soinekoaren kolorekoak egiten dizkiet nik. Pertsona ezagutuz gero, erraza da estiloen asmatzea, baina bestelakoetan sortzen dira arazoak”, aitortu du. Behin, ezkongai bati ere egin zizkion bere ezkontza egunerako.

Internet, erakuslehorik onena

Begia detaileetara egina dute Iratik eta Izarok. Askok fijaszen dira, eta hori da euren inspirazio iturri nagusia. Hori eta Internet, Izarok adierazi duenez. “Leio bat izan da niretzat Internet”. Sarean beste hainbati ikusitako lanetatik gogoko dutena hartu eta euren gustura moldatzen dituzte gero detaile horiek. Gaur egun dena sortuta dagoela nabarmendu du Izarok, baina sortutako hori nork bere erara landuta, gauza original eta eder askoak sortu daitezkeela. Baietz dio Iratik ere. “Egin eta desegin ibiltzen naiz ni, harik eta nire gustukoa lortu arte”. Hasita-




koa amaitzea gustatzen zaie, eta zentzu horretan Izarok aitortu du gai dela gauean ohetik jaikitzeke ere, eskulanari azken detailetxoa gehitzeko. “Eta gauean ez bada, goizean lehenengo lana hori amaitzea izaten da”, gehitu du aldamenetik Iratik. “I-rati, non zaude?” galdezka aritzen dira gure etxean sarri, eta hantxe egoten naiz ni nire munduan, hasitakoa amaitzen. Ez dira euren eskulana saltzetik bizi, eta oinarritzko materialean inbertitutakoa berreskuratzearekin konforme daude biak, azken batean gustura egiten dutelako. “Erraztasuna hartzen duzun neurrian, bizio ere bihurtzen da hau”, esan du Iratik.

Materiala non eskuratzen duten galdetuta, berehala erantzun du Izarok. “Nik uste dut oso merkadillerak garela gu. Bigarren merkealdian ere beti topatzen dut nik eskulanetarako erabili dezakedan zerbait”. Iratik nahiago ditu denda espezializatuak, eta paradisia Bartzelonan topatu duela esan du: “Kale bakar batean hiru denda daude, eta askotan ezin izaten naiz sartu ere egin, bestela galdu egiten naiz”.

Gauza jakina da ahoz ahoko publizitatea dela saltzeko orduan izan daitekeen lagunik onena, eta bi artista hauen kasuan, Internet dela erakuslehorik onena. Facebookeko profilean esekitzen dituzte euren lanak, eta Izaroren kasuan, baita dekorazioko hainbat forotan ere. Horri esker, urrutira iritsi dira bi elgoibartarrek eskulana. “Madrilera ere bidali izan ditut nik enkarguz egindako koadro batzuk”, azaldu du Izarok. Madrilera ez, baina lagunengatik bidez, aspaldi igaro zituzten Iratiren bitxiak ere Euskal Herriko mugak. Iratik, gainera, artisautza azoketan ere jarri izan du mahaitxoa, Trinitateetan adibidez. Elkarrizketan zehar, hainbat bider irten da gai hau, eta Trinitateetan elkarrekin postua jartzea ere aipatu dute. Baliteke, beraz, ekainaren 18an biak elkarrekin ikustea mahaitxo baten atzean. Hala ere, haien lana ezagutzeko nahi duenak ez dauka zertan ekainera arte itxaron, apaingarrietakoren bat erosteko. Facebooken sartu, eta hantxe topatuko dituzue Iratiren bitxiak eta Izaroren apaingarriak.



Izaro Etxegibel, koadro eta apaingarri artean.



Irati Agirreazaldegik brotzeak, belarritakoak eta bestelako bitxiak egiten ditu.



Trenbidea zikinkeriz beteta dago Toletxegain inguruan: “Jendeak ez du ezer errespeta-tzen, eta edozein lekutara botatzen du za-borra. Toletxegain inguruan zikinkeriz beteta dago trenbidea. Botilak, plastikoak eta beste hainbat hondakin ikusten ditugu leihora irteten garenean. Hori guztia garbitzeko eskatzen dugu”



Sigmako zubian dauden pibote gorriak kendu egin behar dira: “Noiz kendu behar dituzte Sigmako zubiko pibote gorriak? Aurre-ra egin beharrean, atzera goaz. Eibar aldera joateko demaseko buelta eman behar da, eta Madalatik herrira sartzeko bost zebra-bide pasatu behar dira, gutxienez. Sigmako zubian zerbait egin behar dela iruditzen zaigu”.



Zuen kezak, galderak edo txalok bidaltzeko:
barren@elgoibarKoizarra.com 948 744 112

IREKI BIDEA EZKERRARI

Abertzaletasunetik eta ezkerretik munduari irekiak. Ezker abertzaletasunetik eta XXI. mendeko ezker zibil eta zabala eraikitzen.





Ezkontzari buruz jakin beharreko guztia aurkituko duzu gehigarri honetan. Inoiz ahaztuko ez duzun ezkontza izateko jakin beharreko argibide guztiak jarri dizkizugu eskura.

ezkontza gehigarria



ARAMBURU
BITXIDENDA

San Frantzisko, 26
Tel./faxes: 943 74 25 35



NAVA
IN PRIMATEGIA

Santa Ana, 44 - ☒ 208
Telf. eta Faxes: 943 744 451
E-mail: nava@euskalnet.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

*Etorri
eta
aukeratu.*

Belaustegi Baserria  **JATETXEA**

San Migel Gaina z/g
Tel. 943 743 102
www.belaustegi.com



EGUN HAU AHAZTEZINA BIHURTUKO DUGU

- Ezkontza-menu ugari ditugu!
- Portxe-jardineko jaima, gosegarrientzako edo dantzalekurako toki aproposa

Ezkontza motak

Elizaz egiten diren ezkontzak

Elizaz egiten diren ezkontzak: Zuzenbide Zibilak balekotzat jotzen ditu Eliza Katolikoaren bidez egiten diren ezkontzak. Elizaz ezkondu nahi duzuenok ezkontza eguna baino hiru hilabete aurretik joan beharko duzue parrokiara gutxienez, ezkontza eguna, ordua, eta gainerako detaile guztiak lotzeko. Abadeak zuen eskaera tramitera onartzeko, hainbat agiri aurkeztu beharko dituzue, eta ezkontide bakoitzak lekuko bana ere eraman beharko du. Lekukoek adinez nagusi izan beharko dute, eta euren paper guztien jabe. Aurkeztu beharreko dokumentuak, berriz, honako hauek dira: NAN nortasun agiriaren edo pasaportearen fotokopia, jaiotza-agiria, errol-datze-agiria, naziotasun ziurtagiria, bataio-agiria (bataiatu gintuzten parrokiari eskatu behar da), eta ezkongabe gaire-

la adierazten duen agiria.


Nolanahi ere, ezkontza hori ontzat emana izan dadin, Erregistro Zibilean jaso beharko da. Elizako zeremonia bukatu eta ezkontza agiria jasotzen dugunetik bost eguneko epea izango dugu horretarako. Ezkontideak 18 urtez behar-rakoak direnean, auzitegi baten baimena ere aurkeztu beharko da.

Kasu bereziak

- **Alargunak:** Aurreko ezkontzako ezkontza-agiria eta ezkontide izandakoren heriotza-agiria aurkeztu beharko dute alargunek.

- **Bananduak:** Aurreko ezkontza-agiria eta dibortzio ziurtagiria.

- **Ezkondeien dispentsa:** Ezkontideak erlijio ezberdinetakoak direnean eskatuko da soilik. Legez hartarako ahalmena duenak ezkontzeko legezko era-



gozpenak ezabatzean datza; ezkontzeko baimena ematean, alegia.

- **Atzerrian ezkontzea:** Kode Zibilak edonon ezkontzeko aukera eskaintzen du. Ezkontideetako bat atzerritarra denean, gure kasuan, Kode Zibileko 50. artikuluari heldu beharko dio.

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

Imprenta Arrillaga

Inprimaketa: Offset
Digitalean

Ezkontza gonbidapenak
Hileta origarriak
Bisita txartelak
Kartelak - etiketak
e.a.

Fotokopiak

Koloretan
Txuri-beltzean

Trenbide Kalea, 13 - behea
Tel.: 943 74 01 87
e-posta: arrillagas@euskalnet.net

Marrazmendak
ELGOIBAR

San Bartolome, 34-35 - Tel. 943 74 03 45

Kala LORADENDA

San Frantzisko, 24
Tel. 943 744 516

Ezkontza zibilak

Tramite guztiak Erregistro Zibilean egin behar dira. Han aurkeztu beharko dituzue dokumentu guztiak, eta han bertan emango dizuete zuen eskaera tramitea onartu dela adierazten duen agiria. Dokumentu guztiak doakoak dira.

Erregistro Zibilean eman dizueten agiri hori da gero ezkondu nahi duzuen udalerriko udaletxean aurkeztu beharko duzuen. Ezkondu nahi duzuen eguna aukeratu duzue han, baina kontuan izan, agiri horrek sei hilabeterako bakanrik balio duela. Epe hori gainditzen bada, berriz aurkeztu beharko dituzue agiri guztiak.

Erregistro Zibilera bi lekuko eraman beharko dituzue, eta lekuko horiek ezinongo dira zuen senide izan. Dokumentu guztiak aurkezten dituzuenean, bake epaileak edo fiskalak aztertuko ditu, eta

ontzat jotzen baditu, ezkontzeko baimena emango dizue. Gehienez ere, 45 eguneko epean jasoko duzue erantzuna.

Ezkontzeko baimena jasoz gero, urtebeteko epea izango duzue ezkontzeko. Zeuek aukeratu ahal izango duzue zeinek ezkondu: alkateak, zinegotziren batek, bake epaileak edota funtzionarioen batek. Atzerian ezkondu nahi izanez gero, kontsulatura bidali beharko dituzue agiriak eta ezkontza eskaera.



Kontuan hartu beharreko oharak

- **Irabazpideko ondasunak:** Katalunian ez, beste Estatuko gainerako herrialde guztietan, ezkondu aurretik pilatutako ondasunak norberarenak izaten dira legez. Ezkondu ondoren lortutakoak, berriz, bienak, eta edozein gestio egiten dela, bikotekide bien oniritziarekin egin behar izaten da.

- **Ondasunen banaketa:** Ondasunen banaketa egiteko, ezinbestekoa da eskriturak notario baten aurrean sinatzea. Ondasun banaketa eginda, bikotekide-etako edozeinek ezkondu ostean lortzen dituen ondasunak jabetza indibidualak izango dira. Nork bere ondasunak izango ditu, alegia. Hala, ondasun horiek saldu edo beste edozer operazio egiteko norbanako horrek ez du bikotekidearen oniritzia beharko.

ILEAPAINDEGIA-ÉDERGINTZA

DONNA

- Manikura/Pedikura
- Masajeak
- Aurpegiko larruazal garbiketa
- Makillajea
- **BERRIA!** Keratinazko leuntzailea

- Depilazioa argizari beroa eta epelarekin
- Depilazio elektriko
- Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- Dutzadun solariuma

Pedro Muguruza etorbidea, 13 - Elgoibar - Tel.: 943 744 388

- Lan komertzialak
- Irudi korporatiboak
- Katalogoak, liburuxkak
- Kartelak, zorian-agurrak
- Jaunartze oroiaguriak
- Egutegiak, etab.
- Inprimaketa digitala
- **BANNERRAK**

Ezkontza gonbidapenak

San Bartolome, 15 - behea • 20870 ELGOIBAR - Gipuzkoa
 Tel./Faxa: 943 53 17 45 • jasone@jasonesg.com • www.jasonesg.com

estetikaalire

Ordutegia: Astelehenerik ostiralera: 09:30 12:30 / 15:00 - 20:00 - Asteazkena: 09:30 - 19:00
 Larunbata: 10:00 - 13:00 - Upaiz zaharra, 1 behea - Tel.: 943 531 636 - Elgoibar

TRATAMENDUAK:

- ✦ **Aurpegi eta gorputz tratamenduak (zelulitisaren aurkakoak, erreduktoreak)**
- ✦ **Ongizate tratamenduak**
- ✦ **Masajeak**
- ✦ **Depilazio laserra, elektrikoak, argizarizkoa**

- ✦ **Mikropigmentazioa**
- ✦ **Manikura**
- ✦ **Hanketako estetika**
- ✦ **Solariuma**
- ✦ **Medikuntza eta kirurgia estetikoak**


GORPUTZEKO TRATAMENDUETAN
 ETA FOTODEPILAZIOAN
 ESPEZIALIZATUAK GAUDE.
 ZATOZ KONTSULTA EGITERA.

EMAZTEGAIENTZAT BONO PERTSONALIZATUAK



JATETXEA

**Loiolako Inazio
Hiribidea, 47
20730 AZPEITIA
Tel: 943 15 16 16
Faxa: 943 15 16 18
www.hotelloiola.com
E-posta: loiola@hotelloiola.com**



Senargaiaren jantzia

Senargaia bigarren planoan gelditzen da ezkontzetan. Hala da, eta hala onartu behar dugu. Begirada guztiak andregaiari zuzentzen zaizkio, bera izaten delako protagonista nagusia. Hala ere, senargaiaren janzkera detaillez zaindu beharreko gaia da. Egia da, bestalde, senargaiaren trajeak ez duela hainbeste aukera eskaintzen, andregaiarena baino askoz sinpleagoa delako, baina ezkontzak eskatzen duen dotoretasun maila eman behar du trajeak.



Senargaia elegante jantzeko pausoak:

- **Galtzak:** garrantzitsua da zapataren gainean erortzea, ibiltzerakoan galtzerdiak ez ikusteko.
- **Txalekoa:** azken botoia zabaldua erabiltzen da eta gorbata eta zapatekin konjuntatu egin behar du.
- **Jantzia:** Jantziaren oihalak nabarmendu egin behar du gainerakoaren artean.
- **Gorbata:** diseinurik gabeko zilar koloreko gorbata izan daiteke egokieta.
- **Gerrikoa:** gorbataren kolore eta oihal berekoa izan behar da.
- **Zapatak:** zapata apal eta lokarriak dira ohikoak.
- **Galtzerdiak:** zapataren kolore berekoak izan behar dute.
- **Alkandora:** bi alkandora izatea gomendatzen da, bat zikitzen bada bestea jantzi ahal izateko.

Trajea aukeratzeko gauza asko eduki behar dira kontuan: andregaiaren soinekoa, ezkontza mota, lekua, gonbidatu kopurua, norberaren gustuak... Txakea eta frak-a arratsaldean



diren ezkontzetan bakarrik erabili behar dira.

Ezkontza sinplea bada, egunez edo informala, traje klasikoa gomendatzen da: gorbatarekin edo dotoretasun ukitu emango dion beste zerbaitekin, adibidez, koloreko gerriko dotore batekin. Kolore gomendagarrienak urdin iluna, beltza eta gris iluna dira.



San Bartolome, 4
Tel.: 943 744 048
20870 ELGOIBAR

JOSU Bizkidenda

- ⊗ Personalizatutako argazkiak
- ⊗ Bataioak
- ⊗ Ezkontzak
- ⊗ Opariak
- ⊗ Oroipenak
- ⊗ Ganaiturak
- ⊗ Ezlortuak





AZALEA Edergintza
M^a Carmen Bereziartua
Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 740 310

TRATAMENDU BERRIAK!!
Konpromisorik gabeko informazioa

GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA
Depilazioa (laserra, elektrikoa eta argizentzkoa) - Mikropigmentazioa



AGURTZANE c.b.
Fotodepilazioa

Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

JOSE ANTONIO

ILEAPAINDEGIA

Errosario, 30
Tel: 943 741 492



AGURTZANE

Ileapaindegia - Fotodepilazioa
Santa Ana, 18 · Tel. 943 741 864

ELENA

ILEAPAINDEGIA
ELEKTRIKOA
San Frantzisko, 49-1 - Tel: 943 741 189

Tximak

ILEAPAINDEGIA
solariuma

Kalamua, 2 · Tel: 943 744 357

Maria Urizar

Ileapaindegia - Solariuma

Errosario, 9-1 · Tel. 943 744 489

DONNA

Ileapaindegia - Edergintza

Pedro Muguruza, 13
Tel. 943 744 388

HAIR'S

ILEAPAINDEGIA
San Bartolome, 6 beheha
Tel: 943 531 279



Judith
EDERGINTZA

Errosario kalea, 19
Tel.: 943 742 950 / 667 742 118

Astelehenetik larunbatera
10:00etatik 20:00etara
Zapatuetan zabalik!



DHA beltzaran-koloreztatze sistema BERRIA!
Tonalitate laranga edo horixkarik gabe!
Beltzaran-koloreztatze
natural berdindua eta polita!

GOMENDIOA, AUTOMAKILAJE IKASTAROA!

- ③ DEPILAZIOA: diodo laserra, argizari beroa eta hotza...
- ③ AURPEGI TRATAMENDUAK: mantxak, adinaren aurkakoak... Mota guztietako azaletan.
- ③ ESPEZIALITATEA: GORPUTZ TRATAMENDUAK: pisua, bolumena, eta zelulitisa gutxitzeko tratamenduak. Gorputzamoldeatu eta lisatzeko aparailu bereziak!

PRESTA ZAITEZ UDARAKO!

Erretratu zaharra



1967

Aste honetako erretratu zaharra Rosario Fernandezek ekarri du BARRENERA. Mekanikako hirugarren mailako ikasleak dira, eta ikasturte amaierako jaialdian ateratako argazkia da behekoa. Merkatu Plazan egin zuten festa, eta ikasle horiek zerbitzari lanak egin zituzten, ikasbidairako dirua lortzeko. Katalunia aldera egin zuten bidaia, Iruñeko sanferminetatik pasatu ondoren. Gogora ditzagun zein diren mutil gazte horiek:

Goian, ezkerretik eskumara: Jose Luis Zabala, Juan Carlos Vila eta Carlos Egaña. **Erdian:** Pascual, Antonio Garcia Marcos, Anton Bergara, Jose Vicente Garcia, Sainz, Jose Inazio Alkorta, Julian Bilbao, Juan Jose Sastre, Alberto Badiola, Jose Antonio Gonzalez, Juan Antonio Palomino, Alberto Etxaniz, J.M. Ostolaza, Jose Migel Lariz, Jesus Mari Goikoetxea. **Behean, makurtuta:** Jesus Astigarraga (†), Jorge Aja, Jose Antonio Etxeberria, Jose Angel Zelaia, Rosario Fernandez, Jose I. Ibañez eta Francisco Javier Beristain.

HAIR'S
ILEA PAINDEGIA

San Bartolome, 6 behea
Tel.: 943 531 279

ASTEARTEETAN
JUBILATUEN
EGUNA:

- Orraztu 8 €
- Garbitu, moztu eta
orraztu 16 €



‘Lurra eta Hizkuntza’ egitasmoa jarriko du martxan Atxutxiamaika aisialdi taldeak

Ingurumena ezagutzeko ekintzak antolatuko dituzte 9 eta 12 urte bitarteko umeentzat



Ume talde bat Armueta Zahar baserrira egindako irteeran.

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika aisialdi taldeak *Lurra eta Hizkuntza* egitasmoa jarriko du martxan apirilaren. Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara arteko gaztetxoentzako egitasmoa izango da, eta izenak berak dioen bezala, lurra eta hizkuntza uztartzea izango da egitasmoaren helburua. Hilean behin ingurumenarekin lotura duten ekintzak egingo dituzte, euskaraz.

Naiara Martin Atxutxiamaikako koordinatzaileak esan du irteerak Elgoibartik kanpora egiteko joera izan dutela beti, eta hori “ondo” dagoen arren, herrian bertan ikusteko eta ikasteko gauza asko dagoela jabetu dira. “Askotan joan izan gara Elgoibartik kanpo dauden baserrietara ezta edo ogia nola egiten duten ikustera, baina Elgoibarren badaude horrelako lanak egiten dituztenak. Kanpora joatea interesgarria da, baina lehenengo herria ezagutu dezaten nahi dugu”.

Horretarako, Elgoibarko beste hainbat

elkarteren laguntza jaso dute (Okil Beltzak eta Morkaiko, esaterako) eta horiekin batera antolatu dituzte ekintzak. Mendi elkar-tearekin bi irteera egingo dituztela adostu dute, baina oraindik zehazteko daude. Era berean, gai honetan adituak eta arituak direnen laguntza ere jaso dute, eta baita Elgoibarko hainbat baserriarrena ere. Azken batean, irteera soilak egin beharrean, Elgoibar eta inguruetan dagoen fauna eta flora ezagutzeko ekintzak prestatu dituztela adierazi du Naiara Martinek.

Lehenengo irteera apirilaren 10ean egingo dute. 11:00etan batuko dira, eta Berasetatik gora joango dira oinez, Azaola baserrira arte, eta han sagardoa egiteko prozesua ezagutuko dute. Elgoibarko gazte koadrila batek sagardoa egin du Azaola baserrian, eta Asier Lizarralde azalduko die prozesu guztia. Irteera honen prezioa bost eurokoa da, eta interesatuek apirilaren 6ra arte daukate izena emateko epea.

lazio urrian hasi ziren egitasmoari forma ematen. Atxutxiamaikak LH3 eta LH6 arteko umeentzako ekintza “gutxi” antolatzen zituela ondorioztatu zuten. Horrez gain, Armueta Zahar baserrira egin zuten irteera baten umeek oso ondo pasatu zutela ikusi zuten, eta hortik sortu zen *Lurra eta Hizkuntza* egitasmoa lantzeko ideia. Ekintza batzuk umeentzat bakarrik izango dira, beste batzuetan gurasoek ere parte hartzeko aukera izango dute, eta aurrera begira, LH1 eta LH2ko umeek parte hartzeko moduko irteerak ere antolatzen saiatuko dira.

Naiara Martin Atxutxiamaikako arduradunak herritarren kolaborazioa eskatu du egitasmoa aurrera eraman ahal izateko. Herriko edozein txoko ezkutu ezagutzen duenak, bitxikeriaren bat kontatzeko duenak edo beste edozein modutan proiektuan parte hartu nahi duenak Elgoibarko Izarrara deitu dezake (943 741 626, Naiara Martin).

Apirilaren 13an iritsiko da Korrika Elgoibarrera, iluntzeko 19:30ak inguruan

Azkaratetik iritsiko da Korrika, eta Madalako parkean egingo diote harrera elgoibartarrek

Apirilaren 13an iritsiko da Korrika Elgoibarrera. Azkarate aldetik etorriko dira korrikalariak, eta Madalako parkean egingo diete ongi-etorria elgoibartarrek, 19:30ak aldera.

Elgoibartarrek Azkarateko tunelaren irteeran hartuko dute lehenengo lekukoa, 19:00etan. Handik Arriaga-San Antolinera jaitsiko dira, eta ondoren, herri barrura sartuko dira errepide zaharretik. Karkizano gaina, San Pedro, Meliton, Pedro Muguruza, Ermuaranbideko errotonda, Madala, San Frantzisko kalea, Nafarroa Plaza, Errosario kalea, Foruen Plaza, San Bartolome kalea, Errosario kalea, Plaza Handia eta Santa Ana kalea zeharkatu ondoren, errepidera irtengo dira. Olasoko errotonda berria pasatuko dute, eta ondoren Sigma

auzoa. Saturixo inguruan eibartarrek hartuko dute lekukoa.

Korrikaren aurtengo edizioa Trebiñon hasiko da apirilaren 7an, eta 11 egunetan 2.350 kilometro baino gehiago egingo ditu. Apirilaren 17an Donostian amaituko da. Aurtengo edizioan Korrika ez da Mendarotik pasatuko.

Korrikan parte hartu nahi duenak martxoaren 31 baino lehen jakinarazi behar du Elgoibarko AEKn (607 601 423),

Korrika txikia

Apirilaren 13an Korrika Txikia egingo dute herriko ikastetxeek. Madalako parkean elkartuko dira 15:15ean, eta herriko kaleak zeharkatu ostean, Plaza Handian amaituko dute.



Bihar izango da 36ko Gerrako umeei buruzko erakusketa ikusteko azken eguna



Joan zen barixakuan zabaldu zuten 36ko Gerrako umeei buruzko erakusketa, eta Elgoibar1936 taldekoek esandakoaren arabera, asteburuan jende asko gerturatu zen argazkiak ikustera. Hala ere, gaur eta bihar oraindik badago erakusketa bisitatzeko aukera (19:00-21:00), eta antolatzaileek herritarrek animatu nahi dituzte, bereziki, informazioa osatzen laguntzeko. Elgoibar1936 taldekoek Salamancako artxiboan lortu dituzte Elgoibarko dokumentuen kopiak, eta horien artean, gerra garaian Elgoibartik ihes egin zuten zerrenda dago. 618 lagun agertzen dira hor, baina Iñaki Odriozolak jendea falta dela uste du, eta zerrenda hori osatzeko, herritarren laguntza oso interesgarria izan daitekeela adierazi du. Erakusketan dauden argazkiak Idi Ezkerra fundazioak bildu ditu, eta Kultura Sailak ekarri ditu Elgoibarrera, Elgoibar1936 taldearen laguntzarekin.

Auresku eta Soinu Zahar txapelketa jokatu dute asteburuan Elgoibarren

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleek Auresku eta Soinu Zahar txapelketa jokatu dute asteburuan Elgoibarren. Zapatuan A saileko dantzariak hartuko dute parte, eta domekan, berriz, B sailekoek. Zapatuko saioa 16:30ean hasiko da, eta domekako 11:00etan.

Bideo foruma egongo da gaur gauean Kultur Etxean

Haizea emakume taldeak bideo forum emanaldia antolatu du gaur gaueko. *Empezando una nueva vida* pelikula ikusiko dute lehenengo, eta, ondoren, Eskarne Larrinaga psikologoarekin tertulian arituko dira. Ekitaldia 22:00etan hasiko da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Doan izango da, eta interesa duen edonor joan daiteke.

Morkaiko 2.0 proiektuaren estreinako arrakasta

Turon de Neouviellera eski irteera

Hasi da fruituak ematen Morkaiko 2.0, Azaola baserrian egindako gogoeta saiotik sortu zen mendi taldearen bertsio berritua. Pirinioetara eginiko azken eski irteeran, parte hartu duten lagun eta antolatzaileak, (23 lagun) erabat asebeteta itzuli dira handik, eta irudi ederrak ekarri dituzte.

“Mendizaletasunak batzen gaitu Morkaikon, eta afizio honek dituen gauza on guztien artean, hauxe da garrantzitsuenak: galtzaile eta irabazleen artean bereizketarik ez du egiten, eta horixe egiaztatu dugu irteera honetan. Horixe da Pirinioetara egin genuen irteeratik ekarri dugun sentsazioa: denok zerbait irabazi dugula. Mendiaz gozatu dute batzuek, ezagupenak trukatu besteek, eta elkarlanak mendian duen garrantziaz jabetu gara guztiok. Demasekoa izan da jendeak bata

besteari laguntzeko izan duen prestutasuna eta grina. Horixe da, hain justu, zuzendaritzako kideok bultzatu nahi dugun filosofia”, nabarmendu dute Morkaikotik. Gainera, helburu nagusia ez bazen ere, Turon de Neouvielle mendiaren (3.035 m.) tontorra egitea lortu zuten denek. “Tontorrarena tartari ginda jartzea izan da” eta Otxoa de Olza mendizalearen hitzak gogora ekarri dituzte euren sentipenak azaltzeko: ‘Tontorra tartaren ginda da. Lortzen badut ondo, baina ez badut lortzen ez da ezer pasatzen, pastel osoa jan dut’. Bada, horrela bueltatu dira etxera, “tarta guztia janda eta asebeteta”.

Morkaiko 2.0 proiektuaren lehen arrakastatzat jo duten irteerak sentsazio “ezin hobeak” laga dizkie Morkaikoko kideei, eta hori norabide onean doazen seinalea dela uste dute.

Argazki eta bideo gehiago www.elgoIBAREN.net/atarian.



Txurruka omenduko dute Sallobenteko frontoiaren mendeurrenean

Apirilaren 2an izango dira ekitaldiak Sallobenten

Sallobenteko frontoiak 100 urte egin ditu aurten, eta ospakizun ekintzen barruan, Sabin Txurruka *Txutxo* pilotariari omenaldia egingo diote 10 Bai taldeko kideek. Sabin Txurruka Sallobente auzoko Orraindi base-rian jaio zen, orain dela 76 urte. Puntako pilotaria izan zen afizionatuetan, eta makina bat txapelketa irabazi zituen bina. Deba Bailerako Txapelketa izan zen Txurrukaren kuttunenetakoa, eta 11 aldiz irabazi zuen. Bikotekide ezberdinekin lortu zituen txapel horiek guztiak: Alonso, Mendikute, Leiaristi eta Odriarekin. Pilotari elgoibartar trebeenen sorlekua izan da Sallobente-Ermuaran auzoa.

Frontoia 1911n eraiki zuten, eta ezker pareteko frontoi batetik baino trinkete batetik gertuago dagoelako da berezia frontoia. Jokatzeko bihurria eta ikusleentzat ikusgarria da Sallobenteko frontoia.

Bazkaria eta pilota partidak

Apirilaren 2an egingo dute ospakizuna, 11:00etatik aurrera, eta horretarako, pilota partidak eta bazkaria anto-



latu ditu 10 Bai taldeak. Gazteen arteko partidari, Karmelek eta Arrillagak osatutako bikoteak Lizarralderen eta Basuetaren aurka jokatu dute. Beteranoen partidari, berriz, Olaso eta Etxeberria arituko dira batetik, eta Beraza eta Al-dazabal, bestetik.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi **3** – Sestao River **2** (3. maila)
Urnieta **2** – Elgoibar **0** (Erreg. pref.)
Elgoibar **2** – Sanse **1** (Jub.)
Elgoibar **6** – Sanse **2** (Kad. A)
Elgoibar **2** – Aurrera Ondarroa **2** (Ohorezko inf.)
Euskalduna **3** – Elgoibar **4** (Inf. Txiki)

PILOTA

Udaberri Txapelketa
Hernani **22** – Lagunak **13** (1. mailako nag.)
Hernani **22** – Lagunak **6** (1. mailako jub.)
Debarroko txapelketa
Lagunak **20** – Bergara **22** (Nag.)
Lagunak **22** – Euskal Jolas **5** (Kad.)
Bergara **22** – Lagunak **8** (Nag.)
Bergara **22** – Lagunak **14** (Jub.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Createch Elg. **6** – Euskalduna **0** (1. maila)
Inter **5** – King Kong Elg. **6** (jub.)

XAKEA

Mekatar Elg. **3** – Easo **1**

ESKUBALOIA

Beristain Elg. **21** – Katilu **21** (jub. mut.)
Txarriduna Elg. **37** – Urnieta **28** (Kad. mut.)
Aiala **26** – IMH Elg. **18** (Kad. neska.)
Aterpe Elg. **12** – Leizaran **24** (Inf. mut.)
Ikus Elg. **27** – Udarregi **33** (Inf. nesk.)
Ereintza **8** – Astigarraga Elg. **16** (Inf. nesk.)
Amenabar **30** – Bankoa Elg. **26** (Inf. mut.)
Tecnifuelle Elg. **19** – Basauri **14** (Sen. nesk.)
San Adrian **15** – Grupo Eibar Elg. **37** (Jub. nesk.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, **26**
16:30 Elgoibar – Mutriku (Erreg. pref.)
Domeka, **27**
12:00 Elgoibar – Añorga (Inf. txiki)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, **26**
10:15 Astigarraga Elg. – Egia (Inf. nesk.)
11:30 Bankoa Elg. – Aloña Mendi (Inf. mut.)
16:00 Lauko Elg. – Basauri (Kad. nesk.)
17:30 IMH Elg. – Pulpo (Kad. nesk.)
19:00 Grupo Eibar Elg. – Usurbil (Jub. nesk.)
Domeka, **27**
10:45 Tecnifuelle Elg. – Zarautz (Sen. nesk.)

PILOTA

Barxakua, **25**
21:30 Lagunak – Hernani (1. mailako jub.)
22:00 Lagunak – Hernani (1. mailako nag.)

Marka berria ezarri du Bihurri aizkolariak



Ordubete, 38 minutu eta 39 segundo behar izan zituen Ernesto Ezpeleta *Bihurri* esku bakarrarekin hiru metroko gerri bueltako pago enborra ebakitzeko. 3.029 aizkora-kada behar izan zituen enborra mozteko, eta marka horrekin munduko errekorra ezarri du aizkolari mendaroarrak.

LANA

ESKAERA

- Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko prest. Erreferentzia onak ditut. Interna edo orduka egingo nuke lan. ☎ **634 650 009**
- Neska lanerako prest. Garbiketa lanak egin edo nagusiak zainduko nituzke, edozein ordutan. ☎ **699 609 190**
- Neska gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Interna edo orduka. ☎ **629 076 301**
- Emakumea pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Edozein ordutegi. ☎ **943 530 795 / 678 972 690**
- Neska edozein lan egiteko prest. Ordukegi malgua. ☎ **699 619 447**
- Mutilla eraikuntzan edo baserrian lan egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **685 212 060**
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. ☎ **618 052 967**
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. ☎ **616 690 415**
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. ☎ **943 742 201 / 652 715 908**
- Neska eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, edo beste edozein lan egiteko. Esperientzia dauka. ☎ **650 152 866**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egin, sukaldlean laguntzeko edo nagusiak zaintzeko. Orduka. ☎ **671 343 612 / 943 531 931**
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. ☎ **687 114 707**

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **608 474 923**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **686 234 612**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Psikologia eta geriatría ezagutzak ditut. ☎ **635 313 375**
- Neska gaztea interna moduan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ **646 977 562**
- Gizona eskaintzen da lanerako. Nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko, eraikuntzan peoi lanak egiteko edo ospitalean gaixoak zaintzeko. ☎ **677 155 611**

ESKAINITZA

- Ajuste eta muntaketa lanak egiteko pertsona behar da. Gutxienez sei urteko esperientzia eskatzen dugu. Bidali curriculuma Zarauzko 309 postakutxatilara.

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Apartamentua alokatzen dut Mendaron. Altzariekin, dena kanpoaldera. ☎ **636 631 632**
- Pisua alokatzen dut Mendaron, Azpilgoeta kalean. ☎ **685 772 494**
- Senar-emazteak gara, seme baten gurasoak, langileak eta oso arduratsuak. Bi edo hiru gelako etxea hartuko genuke alokairuan. ☎ **689 847 947 / 676 602 481**

- Etxea salgai Elgoibarren. Hiru logela, sukalddea, koina eta egongela. Berritua, oso egoera onean. Prezio interesgarria. ☎ **688 658 183**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **685 212 060**
- Pisua alokatzen dut Elgoibarren. ☎ **650 80 91 90**
- Benidorm. Apartamentua alokatzen dut Benidorm erdigunean. Erosoa eta aire egokituarekin. ☎ **943 740 628**
- Pisua alokatzen dut Sigman. ☎ **943 120 343 (12:30-16:00 eta 20:00-22:30 artean deitu. Mari Jose)**

GARAJEAK

- Garaje itxia salgai Urasandin, Anaiak eraikinean. 13x13 metroko neurria. ☎ **620 856 768**

BESTELAKOAK

- 2 urteko ardi txakurra oparitzen dut. ☎ **943 740 228**
- Autokargatzailea salgai, kapotarekin. 350 kilokoa. ☎ **639 933 281**
- Txakurkumeak saltzen ditut, prezio onean. Artzai txakur alemaniarra. ☎ **660 116 314**
- 8 urteko txakurra oparitzen dut. ☎ **943 740 561**
- Somier artikulatu elektrikoak salgai. 1,05x1,90, neurria aldatzeko hankak, latex koltxoia, eta barandauk. ☎ **943 742 864 (Mikel)**



Burgoa Somoza
arraindegia - pescaderia

San Frantzisko kalea, 2
Tel.: 943 748 130

**Umore onez
eta arrain ederraz
zain izango gaituzu!**

ORDUTEGIA:
Asteleheneretan 9:30etik 13:30era
Merkatzenetik zapatara 8:30etik 13:30 era
Arratsaldean martitzen, eguazten eta barixakuetan
17:00etatik 20:00etara

**28an zabalduko dugu!
9:30ean!**





1925tik arrain-saltzaileak



• Zorionak, **Maddi**, hिलaren 17an 2 urte potolo egin zenituelako. Familiakoen, eta bereziki, ahizpa Garaziren partez. Ondo pasa!



• Zorionak, **Haritz**, zure zazpigarren urtebetetzean. Patxo handi bat etxekoan partez.




• Zorionak, **Jon**, gaur 4 urte egin dituzulako. Ondo pasa eta segi horrela! Etxekoan partez.



• Zorionak, **Nahia**, zure laugarren urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoan, eta bereziki, Malenen partez.



• Zorionak, **Oier**, zure lehen urtebetetzean. Aiton-amonen eta bereziki, osaba Aitorren partez.



• Larunbatean 6 urte, **Unax!** Zein azkar pasatzen den denbora! Zorionak, familiakoen eta, bereziki, Enararen partez.



• Zorionak, **Haritz**, bihar 3 urte egingo dituzulako. Besarkada bat, etxekoan partez.



• Zorionak, **Ainara**, zure 9. urtebetetzean. Muxu asko familiakoan partez.



• Zorionak, **Pedro eta Adrian!** Familiakoan, eta bereziki, Alejandroren partez.

SAGARDOTEGIRA IRTEERA



Sallobentearren sagardotegi irteera San Jose egunean egin dugu aurten, Astarbera. Beste urteetan baino jende gutxiago joan garen arren, onenak elkartu gara! Ea datorren urtean danok joaten garen.

Erretratu bakarreko agurra: 3 euro. Argazki bikoitza: 5 euro. Hirukoitza: 7 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

25 barixakua

Erakusketa

19:00 'Bizi guztia ume izaten'
Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Musika

19:00 Kale Kantarien entsegua
Kultur Etxeko sotoan.

Bideo foruma

22:00 'Empezando una nueva vida'
Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

26 zapatua

Azoka

9:00 Azken zapatuko feria
Nafarroa Plazan.

Bertsolaritza

14:30 Bertso bazkaria
Arnaldoren aldeko plataformak antolatuta, Jon Maia eta Amets Arzallus bertsolariekin. Ikastolan.

Dantza

16:30 Aurreku eta soinu zahar txapelketa
Herriko Antzokian.

27 domeka

Dantza

16:30 Aurreku eta soinu zahar txapelketa
Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta, Herriko Antzokian.

28 astelehena

Literatura

18:00 Literatura tailerra
El Quijote liburuaren hainbat pasarte irakurri eta landuko dituzte, liburutegian.

29 martitzena

Artea

17:00 Arte tailerra
Haizeak antolatuta, Greziako arteaz hitz egingo dute Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

30 eguaztena

Jardunaldia

9:00 Orientazioari buruzko jardunaldia
Meka ikastetxean.

Dantza

19:00 Dantza jaialdia
Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleen jaialdia, Herriko Antzokian.

31 eguena

Dantza

19:00 Dantza jaialdia
Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleen jaialdia, Herriko Antzokian.



**Apirilaren 27an,
Txuri Urdin izotz
jauregira irteera!**

Ludotekako bazkideek 8 euro eta bazkide ez direnek 12 euro. Izenematea apirilaren 15era arte! Informazio gehiago ludotekan.



Prest dauzkagu
**Aste Santuko irteerak:
Askizu, Santa Katalina eta
Zarautz gure zain daude.**

Izena emateko epea apirilaren 10ean bukatzen da. Mugitu zaitetz!!

ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

ORDUA ALDATU BEHARKO DA MARTXOAREN 26AN, HAU DA, ZAPATUTIK DOMEKARAKO GAUEAN. ORDULARIAK ORDUBETE AURREPATU BEHAR DIRA, ETA GOIZEKO 2:00ETAN 3:00AK IZANGO DIRA.



OKINDEGIA

27 domeka FOTERO

FARMAZIAK (24 orduz)

25 Yudego
26 Zabaleta
Goizez: Etxeberria (Santa Ana)
27 Zabaleta
28 Etxeberria (Errosario)
29 Ibañez
30 Garitaonandia-Bidasolo
31 Etxeberria (Santa Ana)
1 Fernandez

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro) Tel: 943 756 142

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«Morning glory»

25, barixakua: 22:15
26, zapatua: 19:00/22:15
27, domeka: 19:00
28, astelehena: 21:30

«Zigortzaileak»

27, domeka: 16:30

«Morning glory» Zuzendaria: Roger Michell. EEBB, 2010. Iraupena: 108 minutu. Generoa: Komedia. Aktoreak: Rachel McAdams, Harrison Ford, Diane Keaton, Patrick Wilson. Becky Fuller albiste lokalen ekoizleak bere ametsa lortu du azkenean: New Yorkeko Deybreak goizeko albistegiaren ardura hartu du. Hala ere, ametsa ametsgaizto bihurtzeko arriskuan dago lehenengo egunetik. Emakume indartsua eta ausarta da, hau da, arrakasta lortzeko beharrezkoa den guztia dauka, baina gailurrera iristeko bidean, Mike Pomeroy telebista aurkezle harroputza agertuko da.

«Zigortzaileak» Zuzendariak: Arantza Ibarra eta Alfonso Arandia. Aktoreak: Carlos Sobera, Anne Igartiburu, Izaro Baza, Amaia Aberasturi. Leire 12 urteko neskatua da. Kokoteraino dago haurrak zirikatzen eta jotzen aritzen diren bere gelakide batzuekin. Arratsalde batean, Anjel eta bere hiru adiskide astokilok, Ainara, Leireren lagun mina, erasotu egiten dute. Ainarari egoera jasan ezina egiten zaio eta erasoak pairatzeaz nekatuta, eskolaz aldatzea erabakitzen du. Leirek, Sandra eta Leo lagunekin batera, talde sekretu bat eratzea erabakitzen du.

KANTABRIA Jatetxea

Arrate Gaina, 4
279 Postakutxa
20600 EIBAR
943 121 262
943 127 334



*Edozein
ospakizunetarako
aukera*



www.kantabriajatetxea.com

**EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK**

ARRATEKO
SANTITIEGIAREN
ondoan aurkitzen gara

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak,
zilarrezko ezkontzak, urrezko ezkontzak,
karta, enpresa bazkariak...

RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA. JATETXEA



LASA JATETXEA



**250 LAGUNENDAKO
JANGELA**

.....
*ERA GUZTIETAKO BANKETEA
ospatzeko toki bikain batean*

